



BLOGAK

ZER DIRA?

Haien izenik ezagunena, alegia, blog, *web* eta *log* (egunerokoa) hitzen arteko lotura da, horregatik, Weblog edo bitakora bezala ere ezagunak dira.

Interneten sortu daitezkeen gune pertsonalen artean erabilienak dira eta, oinarrian, ideiak azaldu eta trukatzeko balio duten web orri erraz bat dira.

Hurrengo helbide hauetan blogen inguruko azalpen gehiago irakurri ahal izango dituzu eta bide batez zure lehen blogak bisitatu:

http://www.mutilmedia.com/?page_id=87

<http://www.euskalerrria.org/posta/default.cfm?atala=blog>

ZELAKOAK DIRA?

Itxuraz ezberdinak ematen badute ere (bakoitzak bere diseinua, izena, argazkiak,... dituelako) blog gehienek atal berdinak izaten dituzte.

Ikasgaietan komunikatzeko tresna bat izanik, blogen atalik garrantzitsuenak bertan idazten diren post edo artikulua eta hauei gehitzen zaizkion erantzunak dira.

Artikuluak egileak idatzi eta blogean argitaratzen dituen testuak dira. Testuari erantsita bestelako multimedia artxiboak ere joan daitezke: bideoak, musika, ... Multimedia artxibo hauek oso interesgarriak eta erabilgarriak izaten dira ikasgaieako edukien azalpen argigarri moduan erabiltzeko.

<http://iktgizarteziientzietan.wordpress.com>

<http://ehhistoria0809.wordpress.com>

Kronologikoki agertzen dira, azkenekoz idatzi eta argitaratu dena blogean lehenengoa irakur daitekeelarik eta, horrez gain, tematikoki ere sailka daitezke, horretarako, egileak sortzen dituen kategoria ezberdinak erabiliz.



Honez gain, tag-ak eransteko aukera ere dago. Tag-ak (ingelesez etiketa esan nahi du) artikulua erabiltzeko edukiarekin bat datozen hitz gakoak dira eta blogean mezuak bilatzeko beste modu bat eskaintzen dute, antolaketa kronologiko eta tematikoaz gain.

Komentarioak bloga bisitatzen duen edonork erantsi ahal ditu post ezberdinei erantzuteko, baina administradoreak, hots, blogaren jabeak, hauek aldatzeko, kentzeko edo gehitzeko aukera izango du beti ere.

Tracback-ak ere sortu daitezke. Hauek blog ezberdinen arteko artikulua lotzeko erabiltzen dira eta, orokorrean, irakurleek sortzen dituzte gogoko izan duten post horren kokalekua markaturik uzteko eta beste batzuk blog ezberdinetatik artikulua horretara hel daitezke.

Artikuluetatik gain, orrialdearen albo baten, bestelako edukiak dituen zutabe bat agertzen da. Honetan agertzen diren edukirik ohikoenak kudeatzailearen aurkezpena, egutegia (zeinetan artikulua argitaratu diren egunak markaturik egongo diren), blogak beste blog batzuekin dituen loturen zerrenda (*blogroll*), erabiltzeko tag-ena, kategoriena,...izan daitezke.

Blogak sortzeko plataforma bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina denek atal berdintsuak izaten dituzte. Ohikoenak artikulua idatzi, kategoriak sortu, blogaren egitura/diseinua aldatu edota edukiak kudeatzeko aukerak eskaintzen dituzte.



EZAUGARRIAK

Aurreko puntuan azaldutakoa laburbilduz, hurrengoak izango lirateke blogen ezaugarriarik aipagarrienak:

- ∟ ERREZTASUNA: Blog bat sortzeko ez da informatika ezagutza berezirik behar eta, online plataforma egoki bat erabiliz gero, egilea bere artikuluak idazteaz baino ez da kezkatu beharko ia.
- ∟ ANTOLAKUNTZA KRONOLOGIKO ETA TEMATIKOA: Artikuluak kronologikoki ordenatzen dira, azkenekoz idatzitakoa blogean lehen postuan azaltzen delarik. Horrez gain, artikuluak gaiaren arabera ere sailka daitezke. HORELLA adibidez, Gizarte Zientzietako blog baten barruan, ikasgai ezberdin bakoitzak bere atala izan deke: Historiako atala. Geografiako, Etikakoa, Hiritartasunerako, Ekonomiarako, Sikologiarako, etab.
- ∟ LANKIDETZA: Blogiek egile ezberdinek onartzen dituzte, beraz pertsona ezberdinak hartu ahal dute parte postak idazten. Era berean, irakurleek ere blogean parte hartu dezakete komentario eta trackback-ak gehituz. Ezaugarri hau, gure ikasgaietako jarrerazko edukiak ebaluatzeko balio ahal digu. Demagun, Hiritartasuneko ikasgaian elkarlana kontzeptua lantzen ari garela, beno ba blogean ikasle batek egiten dituen parte hartze, kolaborazio lan edota artikuluen bidez, ikasle hori zein puntutararte elkarlanaren kontzeptu horretan “konpetetntea”den ikusi daiteke.
- ∟ SARE NAGUSIAGO BATEN PARTE IZAN DAITEZKE: Blog ezberdinen artikuluen arteko loturak sortu daitezke trackback-en bidez.. Demagun ikasle bakoitzak bere bloga duela duela, beno ba ikasleek beraien arteko loturak egiten(etiketa eta rss-en bidez eta bata bestearen blogean egiten dituen komentarioen bidez, klaseko edo ikasgaiko blog taldea sortu daiteke.



Ariketa hau oso interesgarria izan daiteke, irakaslearen blog nagusi batetan idatzitako artikulu edo ariketa batetik abiatuz, ikasle bakoitzak bere blogean artikulua horrekiko eta beste ikasleek idatzi dituzten komentarioekiko komentarioak egiteko.

Adibidez, aurreko blog berdinean agertzen den moduan,

<http://iktgizarteizientzietan.wordpress.com>, Espainiako Gerra Zibilari buruzko bideo hortaz baliatuz, ikasle bakoitzari bideo hori ikusteaz gain, familian duen norbaiti bere gerra garaiari buruzko galderak egitea eskatu ahal izate, eta bideoan ikusitakori erantzunak ematea. Horrez gain, bere erantzuna emateaz gain bere ikaskideek (bakoitzak bere blogean) erantzundakoari komentarioak eginez, Artikulu horren inguruko sare handi bat sortu daiteke. Ariketa hau, asko gustatzen zaie eta asko ikasten dute.



BLOGAK eta HEZKUNTZA

Blogak hezkuntza esparruan sortzen direnenean edublog (*education+blog*) izena hartzen dute eta ikaste-irakaste prozesuan ematen diren egoera ezberdinetan erabili daitezke:

Ikasgaiko bloga: Aurreko ataldean erabilitako adibidez izango litzateke. Erabilienetarikoen artean dago. Irakasleak kudeatutako bloga izan daiteke, bertan ikasleek haien kontura landu dezaten eduki osagarria eskaintzeko, adibidez.

<http://blogdelaclasedehistoria.blogspot.com/>

<http://pedrocolmenero.wordpress.com/>

<http://vkgeografiabat.blogspot.com/>

<http://vkhistoriabat.blogspot.com/>

Ikasleek egindako lanekin ere egin daiteke, bloga ikasgaiari buruz sortzen dituzten lan eta proiektuen erakusleia izan dadin.

Ikaslearen blog pertsonalak: Ikasgaiari buruz eguneroko bezala erabiltzeko sortu dezakete: haien iritziak, ikasitakoaren inguruko hausnarketak...

<http://urtzisaratzaga.wordpress.com/2007/04/25/aitor-kuende-irakasleari-egindako-lana/>

Argitalpen elektronikoko multimedia: Artxibo mota ezberdinak eransteko ematen duten aukera erabilita, blogak aldizkari, irrati edota lanen argitalpenetan bihurtu daitezke.

<http://www.claseshistoria.com/>



Taldeko lanen kudeaketa: Ikasleek zein irakasleek taldeka burutzen dituzten lanen laburpenak, hausnarketak, balorazioak,... egiteko ere oso erabilgarriak izan daitezke.

<http://blogdediversificacion.wordpress.com/category/gizarte-zientziak/>

NOLA SORTU?

Blogak sortzeko plataforma ezberdin eta ugariak aurki daitezke interneten, hemen interesgarrienetariko batzuk baino ez ditugu aipatuko.

Blogak euskaraz sortzeko gunerik ezagunena **www.blogari.net** da.

www.nireblog.com ek ere euskaraz sortzeko aukera emateaz gain munduko beste hainbat hizkuntzetan sortzeko aukera ematen du.

www.wordpress.com, agian aukera gehien eskaintzen duenetariko bat, ingelesez, gazteleraz eta orain euskaraz ere.

www.lacoctelera.com orriak gazteleraz eskaintzen ditu bere zerbitzuak.

www.edublogs.org, ingelesez dago eta bloga dohainik sortzeko aukera emateaz gain bideo-tutorialak eskaintzen ditu laguntza gisa.

MATERIAL OSAGARRIA:

<http://geogalia.blogspot.com>

<http://www.blog.educastur.es>

<http://www.observatorio.cnice.mec.es/>

<http://www.aulablog.com>

<http://www.educared.net>

<http://www.educared.net/profesoresinnovadores/>


ARIKETAK

1. ariketa: Hau hobeto ulertzeko, ikastarorako sortu dugun blogean sartu zaitezke eta bertan agertzen den agurrari erantzun edota zure agur-post-a idatzi. Bigarren aukera hau aurrera eramateko hurrengo pausuak eman beharko dituzu:

1) Hemen klikatu edota zure bilatzaile barran kopiatu:

www.wordpress.com

2) Ezkerrean agertzen den zutabearen goialdean “Already hip?” jartzen duen tokian klikatu.



3) Hurrengo datuak osotu:

Erabiltzailea: **iktueu09**

Pasahitza: **ikastaroa**



“Login” sakatu

- 4) **Goikaldean, “New post” jartzen duen tokian klikatu eta zuzenean blogean mezu berria idazteko tresna agertuko zaizu. Han dauden aukera ezberdinak aztertu eta nahi duzunean zure mezua idatzi eta argitaratu.**
- 5) **Zure mezua blogean idatzita ikusteko Goikaldean, azpiko mezu hau:**

UEUko IKTeen bloga [Visit Site](#)

agertzen den tokian, “visit site” klikatu eta idatzitakoa blogaren portada orrian agertuko zaizu.

6) **Blogaren kudeaketa tokira bueltatzeko, goikaldean eta ezker aldean agertzen den “My dashboard” (nire arbela) hitzean klikatu eta edizio esparrura eramango gaitu. Bertan gehiago idatzi, idatzitako aldatu, ezabatu, koloreak aldatu etab. Egin ahal izango dugu. Baina horretarako saltseatu beharko da.**



2. ARIKETA: Hezkuntzarako baliagarriak edo interesgarriak izan daitezkeen blog batzuen azterketa egin eta zuontzat interes gehien dutenen aurkezpena egin gure blogean. Artikulua idazteko, 1.ariketan emandako pausuak jarraitu behar dituzue.

Blogak aukeratzea zuen esku usten dugu: dagoeneko ezagutu edo erabiltzen dituzuenak izan daitezke, edota hurrengo helbide hauetan agertzen direnetatik abiatuz aukera ditzakezue.

<http://luisvia.org/>

<http://pepeflorestellez.wordpress.com/>

<http://pedrocolmenero.blogspot.com/>

<http://blogdediversificacion.wordpress.com/category/gizarte-zientziak/>



3. ARIKETA: Zure bloga egitera animatzen zara? Hemendik aurrera zuri dagokizu blogak sortzeko plataforma ezberdinak aztertu eta zure bitakora sortzeko bat aukeratzea. Sortu ezkerro ez ahaztu gure blogean zurearen aurkezpen bat egitea eta batez ere helbidea esateaz ez ahaztu.

Behin blog helbidea daukazunean, lehenengo ariketan esan dugun bezala, saltseatzen ikasten da, eta batez ere ez izan beldurrik, ordenagailua ez da apurtzen eta. Egiten den guztia, desegin daiteke eta.